PROIEKTUAREN ZKIA: **EFA082/01**
AKRONIMOA: **URAMUGA**

URAMUGAren helburua da uraren ziklo integralaren kudeaketa hobetzea Nafarroa, Euskadi eta Akitania Berriko mugaz gaindiko eremuetan. Proiektuaren justifikazioa da urak ez dituela mugak kontuan hartzen, eta, horregatik, uraren zikloa mugaz gaindiko eremuan kudeatzeak mugaz gaindiko ikuspegia eskatzen du: proiektuaren lurraldean saneamenduko azpiegitura partekatuak daude (Urdazubi-Ainhoa eta Txingudiko badia), hau da, mugaren alde batean bildutako ura beste aldean arazten da.

Dauden mugapenak eta sortzen diren arazoak konpontzeko, beharrezkoa da batera jardutea mugaren bi aldeetan, konponbiderik eraginkorrenak ezartzeko. Era berean, eskualdean dagoen edateko ura baliabide mugatua eta partekatua da, eta, horregatik, batera jardun behar da mugaren bi aldeetan hornidura bermatzeko.

Testuinguru horretan, proiektuak barne hartzen ditu (i) uraren zikloaren gobernantza eta kudeaketa partekatua hobetzeko jarduerak, (ii) saneamenduko sistema partekatuak hobetzea hainbat jarduketaren bidez, eta (iii) ur-hornidura ziurtatzea mugaz gaindiko lurraldean, egungo sareak hobetuz eta hornidurarako eta sareen arteko konexiorako aukera berriak aztertuz. Horretarako, URAMUGAk Nafarroan, Euskadin eta Akitania Berrian saneamenduaren eta edateko uraren kudeaketan eskumena duten erakunde publikoak ditu kide eta bazkide.

Hona hemen proiektuaren emaitzak:
1) Lankidetza-esparru egonkor eta

Nº EFA DEL PROYECTO: **EFA082/01**
ACRÓNIMO: **URAMUGA**

El objetivo de URAMUGA es mejorar la gestión del ciclo integral del agua en las zonas transfronterizas de Navarra, Euskadi y Nueva Aquitania. El proyecto se justifica porque el agua no entiende de fronteras, y por ello la gestión del ciclo del agua en zona transfronteriza debe abordarse con enfoque transfronterizo: en el territorio del proyecto existen infraestructuras de saneamiento compartidas (zona de Urdax- Ainhoa y la Bahía de Txingudi), donde el agua recogida a un lado de la frontera se depura al otro lado.

Para resolver limitaciones y problemas existentes es necesario actuar en ambos lados de la frontera de forma conjunta, para adoptar las soluciones más efectivas. Igualmente, el agua potable disponible en la región es un recurso limitado y compartido y para garantizar el abastecimiento de ambos lados de la frontera es necesario actuar de forma conjunta.

En este contexto, el proyecto incluye actuaciones para (i) mejorar la gobernanza y la gestión compartida del ciclo del agua, (ii) mejorar los sistemas de saneamiento compartidos mediante actuaciones diversas, y (iii) asegurar el abastecimiento de agua en el territorio transfronterizo mejorando las redes actuales y estudiando nuevas posibilidades de abastecimiento e interconexión de redes. Para ello, URAMUGA incluye como socios y asociados a las entidades públicas competentes en la gestión de saneamiento y agua potable en las regiones de Navarra, Euskadi y Nueva Aquitania.

Los resultados del proyecto son:
1) Un marco de cooperación estable y

iraunkorra uraren kudeaketa partekaturako
2) Saneamenduko azpiegitura hobeak
3) Hornidurako azpiegitura hobeak eta baliabide hidrikoak eta sareak konektatzeko aukerak hobeto ezagutzea. Emaitza horiek onuragarriak izango dira hala lurraldeko biztanleentzat (saneamendu eta hornidurako zerbitzuak hobetuko baitira) nola ingurumenarentzat (uraren kalitatea hobetu eta uraren kudeaketa iraunkorragoa ahalbidetzen baita).

- **Titulu osoa:** Uraren zikloaren kudeaketa jasangarria eta baterako gobernantza mugaz gaindiko arroetan

- **Deialdia:** Interreg POCTEFA 2021-2027

- **Laburpen-esaldia:** URAMUGAren helburua Nafarroa, Euskadi eta Akitania Berriko mugaz gaindiko eremuetako uraren ziklo integralaren kudeaketa hobetzea da. Proiektuaren lurraldean hornidura eta saneamenduko azpiegitura partekatuak daude; horregatik, dauden mugaketak eta arazoak konpontzeko, beharrezkoa da mugaren bi aldeetan batera jardutea.

- **Aurrekontua guztira:** 3.627.435,74 €

- **Lesakako Udalaren aurrekontua:** 121.738,40 €

- **Bazkide nafarrak:** NILSA eta Bera, Lesaka, Baztan, Urdazubi eta Luzaideko udalak

- **Beste bazkide batzuk:** Servicios de Txingudi–Txingudiko Zerbitzuak S.A. (Euskadi) eta Communauté d'Agglomération du Pays Basque–Euskal Hirigune Elkargoa (Akitania Berria)

- **Epea:** 2024/01/01etik 2026/12/31ra

duradero para la gestión compartida del agua.
2) Mejores infraestructuras de saneamiento
3) Mejores infraestructuras de abastecimiento y mejor conocimiento sobre recursos hídricos y posibilidades de conectar redes. Estos resultados beneficiarán a los habitantes del territorio (al mejorar los servicios de saneamiento y abastecimiento), y al medio ambiente (al mejorar la calidad de las aguas y permitir una gestión más sostenible del agua).

- **Título completo:** Gestión sostenible y gobernanza conjunta del ciclo del agua en las cuencas transfronterizas

- **Convocatoria:** Interreg POCTEFA 2021-2027

- **Frase resumen:** El objetivo de URAMUGA es mejorar la gestión del ciclo integral del agua en las zonas transfronterizas de Navarra, Euskadi y Nueva Aquitania. En el territorio del proyecto existen infraestructuras de abastecimiento y saneamiento compartidas, por ello, para resolver limitaciones y problemas existentes es necesario actuar en ambos lados de la frontera de forma conjunta.

- **Presupuesto total:** 3.627.435,74 €

- **Presupuesto del Ayuntamiento de Lesaka:** 121.738,40 €

-**Socios navarros:** NILSA, Ayuntamientos de Bera, Lesaka, Baztan, Urdax y Valcarlos.

- **Otros socios:** Servicios de Txingudi – Txingudiko Zerbitzuak S.A. (Euskadi) y Communauté d'Agglomération du Pays Basque (Nueva Aquitania)

- **Plazo:** Del 01/01/2024 al 31/12/2026